

## Aurten ere, Arabar Errioxako lau ikastetxetan aritu gara bertsoetan

2015/16 ikasturtea

ARABAR ERRIOXAKO URTEKARIA  
**ARABAR ERRIOXAKO BERTSOTAN**

Oihane Perea, Araba Bertsozale Elkarteko irakaslea, klasea ematera etorri da Arabar Errioxako lau ikastetxeetara.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak izan dira, "Gu ere bertsoetan" programan parte hartu dutenak. San Bizente Ikastola, Lantziegoko ikastola, Assa ikastola eta Bastida ikastolako gaztetxoak aritu dira bertsoetan 2015-2016 ikasturtean zehar, guztira 120 ikaslek hartu dute parte proiektu honetan.

Haurrek primeran pasa dute bertsoak egin eta entzunez, hitzekin eta euskararekin jolastuz eta bide batez, hainbat bertso emanaldi burutu dituzte euskararen egunerako, irrati-rako, Agenda 21en testuinguruan eta ikastolako beste haurrek gozatzeko bertsoak prestatu eta taularatuz. **GU ERE BERTSOLARI** programa "Bertsolaritzaren curriculum" lanean oinarritzen da eta lau eremu lantzen ditu: **MUSIKA, KULTURA, HIZKUNTZA** eta **TREBETASUN PERTSONAL ETA SOZIA-**



### ARABAR ERRIOXAKO TXANDRIO BERTSO ESKOLA



**Txandrio**  
bertso eskola  
arabar errioxa



**bertso**  
**eskolara**  
**goaaaaaz**



2016-2017 ikasturtean

**HAUR ETA GAZTEEN TALDEAK**

**SORTU NAHI DITUGU!**

Interesa baduzue, jarri gurekin harremanetan:

tel: 945010505

(Ekaina eta Irailan, astelehenetik ostiralera 9:30-13:30)

e-posta: [araba.administrazioa@bertsozale.eus](mailto:araba.administrazioa@bertsozale.eus)

## KUADRILA ARTEAN BERTSOTAN

Martxoaren 5ean Arabako Errioxako bertso-eskolak Arabako Bertso Kuadrilla artekoaren 6.topaketaren antolakuntzaren ardura bere gain hartu zuen. 6 topaketa antolatu dira aurtengo edizioan, Arabako 6 eskualdetan, eta Arabar Errioxara ere iritsi zen Kuadrilla artekoa; azken topaketa honetan ere Kuadrilla artekoan ageri den sentsazioa errepikatu zen: taldeka bertsoan gozatu, parte hartu eta ondo pasatu.

Topaketa honetan parte hartu zuten 4 taldek, herriko plazan hitzordua hartuta, bertso-triki poteori ekin zioten eguerdi partean. Bertako eta Vianako kidez osatutako Oihana Triki Sound Band taldearekin batera tabernaz taberna aritu ziren, librean erronkarako izena eman zuten lau taldeak: Aramaio, Lautada, Mendialde eta bertako txandrio bertso eskoletako bertsolariak

Arabako Errioxako ardoak lagun izan zituzten poteoan, eta baita Azkenak elkartearen prestatutako bazkarian ere. Bazkaldu ostean Oiongo San Vicente Ikastolako 1.DBHko ikasleek "Emakumeak libre garen egunean" bertso-sorta idatzia kantatu zuten. Ondoren, Mendialdeko bertso-eskolako kideek teknologia berrien inguruan prestatu eta kantatu zuten.

Jarraian, bat-bateko saio musikatuan gitarrak, kutxa flamenkoa eta armoniak lagunduta puxiketari gorderiko ari-keta ezberdinetan aritu ziren bertsoan. Bertsoan gozatu zuten talde guztien kideek, eta hurbildutakoek ere ederto pasatu zuten. Musikak oso atsegina egin zuen bertso jarduna. Bertso-eskolak eta Oiongo Udalak oparitutako ardoarekin Argantzunen Finaleko festa handian, martxoaren 12an elkar ikusi arte agurtu zuten parte hartzailek.





## Arabar Errioxako lehen eskolartekoa: 2016



Lehen Eskolarteko topaketa antolatu genuen aurten EKA asteburuaren baitan Lantziegon ikasturteari amaiera borobila emanez. Idatzizko modalitatean eskolarteko bertso paper sariketa eta sari banaketa-topaketa jaialdia burutu genituen, maiatzaren 22an. Lehenengo aldia izan da, eta izango da zer hobeturik (hurrengo urtean gurasoentzat gutuntxo bat faltarik gabe), baina pozik joan ginen etxera,,,

Bastida, Oion, Lapuebla eta Lantziegoko ikastoletako 200 haur eta gaztetxok parte hartu zuten bertsoak gelan idatziz, Amaiera moduan, lan hautatuak oholtza gainean kantatzera etorri ziren igandea izan arren Arabar Errioxako bazter ezberdinetatik ikasgelaren ordezkari, eta merendola ederra egiteko oparitxoa jaso zuten. Ikasturte osoan zehar egindako lanaren aitortza goxoa ikasgelan konpartitzeko.

Bertsoek eta herri kirolek bat egin zuten ondoren eta herri kirol erakustaldi bikaina bertsoan jarraitu ahal izan genuen izerdirik bota gabe. Ederki pasa genuen, eta hori gutxi balitz haurrek ere parte hartu eta gozatzeko aukera paregabea izan zuten.

Ondoren dantzak eta herri bazkaria. Asteburu borobilari azken puntu are borobilagoa jarritz.

Eskerrik asko Arabar Errioxako euskaltzaleak, ikastoletako irakasle, haur eta gurasoei, Aupa zuek!





## SAIOAK Arabar Errioxan punta batetik bestera

2015/09/05 Lantziego

Bertso dantza plaza jaietan

2015/10/25 Oion

Araba Bertsozale. Bertso-poteoa

2015/12/26 Bastida

Araba Bertsozale. Bertso-poteoa

2016/04/24 Oion

Euskaldun berriaren kioskoaren inaugurazioa

2016/5/20 Lantziego

Bertso-poteoa (EKA)

2016/5/22 Lantziego

Herri kirolak bertsoan (EKA)



## BERTSOZALEON txosna

Azken bi urtetako esperientzia eta gero, Arabako Bertsozale Elkarteak prest dago. Aurten ere, Entxosnatuko gara.

Ikasturte amaieran hutsik geratutako bateriak kargatzeko, eta hurrengo ikasturteko ametsak herriz-herri eta eskualdez eskualde egi bihurtzeko ezinbesteko bilakatu da eta.

Beraz, badakizue, zuen zain edukiko gaituzue Gasteizko jaietako Txosna-gunean: trago bat hartu, gure afari ekologiko goxoak dastatu, txandaren bat egin, lanean ari direnak animatu, indarrak hartu ... dena ez da bertsoa izango!! Baina Arabar Errioxako ardoen bertso-dastaketa bat bertsoan ere antolatzen ari gara txosna



ENTXOSNATU GUREKIN!



Arabako Bertsozale Elkarteak  
Benito Perez Galdos, z/g- Amaia Zentroa  
945 010505/ araba@bertsozale.eus

[www.bertsozale.eus/araba](http://www.bertsozale.eus/araba)

[www.bertsoa.eus](http://www.bertsoa.eus)



KULTURA SALA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA